



## MANIFESTUA

### Glocal cinema: big stories, small countries

Europa kulturalki anitza den lurraldea da. Zenbaitetan, ordea, aniztasuna merkatuaren zatiketa bezala ulertzen da, eta hala, konnotazio negatiboa bihurtzen da kultura adierazpen ororentzat. Hariaren beste muturrean, Lisboako Tratatuak maila gorenean jasotzen ditu kultur adierazpenak. Are gehiago, bertan zehazten denez, Europar Batasuna kultur aniztasunaren eta aniztasun linguistikoaren aberastasuna errespetatzearen aldekoa da eta bere helburuen artean jasotzen da Europako ondasun kulturala, eta haren kontserbazioa eta garapena bermatu behar dituela.

Heterogeneotasun horren parte bezala, aniztasunaren balioan sinesten dugu, eta aniztasunak sortzen dituen aukeratan ere bai. Hizkuntza nagusietatik at dagoen Europako beste mapa kultural bat defendatzen dugu, hizkuntza ez hegemonikoetan sortutako filmografiarekin. Eta noski, filmografia horiek garatzeko instituzioen laguntza behar-beharrezkoa da.

Europako Batzordeak emandako datuen arabera, Europar Batasunak 500 milioi biztanle ditu, 28 estatu, 3 alfabeto eta 24 hizkuntza ofizial –horietako batzuk mundu osoan zehar hitz egiten dira–. Gutxi asko, beste 60 hizkuntza daude Europako erregio ezberdinetan, eta hiztunak 40 milioi inguru dira.

Ikus-entzunezko Europako Behatokiak emandako datuen arabera, Europan ekoiztutako pelikulek iaz merkatu-kuotaren % 33,6a lortu zuten (1996tik inoizko altuena). Herrialde bakoitzeko barne merkatuan berezko ekoizpenek gero eta pisu handiagoa dute. Hala ere, Europan gehien ikusten diren pelikulen artean, 20tik 18 ingelesez, frantsesez, alemanez edo gazteleraz eginda daude.

#### I. Hizkuntza ertain edo txikietan egindako filmen erronkak.

Barne merkatua txikia izanik, filma horien banaketa murrizta da. Horrela izanik ere, zenbait zinegilek ama hizkuntzan lana egitea hautatzen dute. Ekimen honetan parte



hartzen dugunok elkarlana sustatu behar dela pentsatzen dugu, zinegile hauei aukera berriak sortzeko behar beharrezkoa da elkarlan hori.

## **II. Egitasmoaren jatorria, erantzunak**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailak antolatu du konferentzia hau esperientziak trukatu eta kooperazioa sustatzeko. Helburua da zinema-industriako eragileei elkarlanean aritzeko plataforma eskaintzea, proposamenak garatu eta erronka berriei elkarrekin aurre hartzeko.

Hizkuntza ez hegemonikoak sailkatzerakoan, Europako hizkuntza nagusiak ez diren guztiak sartzea adostu dugu. Hizkuntza nagusiak hauek dira: ingelesa, frantsesa, alemana, gaztelera eta italiera.

## **III. Lan-ildoak**

- Hizkuntza ez hegemonikoetako filmografien aldeko ekintzak antolatzeko adostasun zabala dago elkartu garen 15 estatu eta herrialdeetako 22 profesionalen artean.
- Europak duen aberastasunetako bat kultur aniztasuna da, eta ezaugarri hori aukera gisa eta gure gizartearen ikur gisa aurkeztea garrantzitsua dela uste dugu.
- Era berean, beharrezkoa ikusten dugu filmografia horiek gizarteratzea.
- Aniztasuna defendatzen dugu, baita zineman ere. Gure administrazioen konpromiso publiko eta politikoa defendatzen dugu hizkuntza ez hegemonikoan ekoizten den zinema defendatzeko. Izan ere, komunitate orok du beharra bere historia bere hizkuntzan kontatzeko, nahiz eta merkatu komertzialetik at geratu.
- Audientzia eta merkatu kuota handiagoetara iristea beharrezkoa denez, estatu parte-hartzaileen arteko harreman sarea sustatuko dugu banaketa eta emanaldiak areagotzeko.
- Filmografia mota honek duen eragin ekonomikoa aitortzen dugu, eta gure laguntza egituratu.

## **IV. Adierazpena**



Ondorioetan oinarrituta, bilera honetan parte hartu dugun guztiok bost puntuko agenda adostu dugu. Helburua da hizkuntza ez hegemonikoetako zinema-industria sustatzea. Besteak beste, jarraian zehazten ditugun proposamenak aurkezten ditugu.

**1. Jarraikotasuna izango duen lantaldea sortzea:**

Ekimen ezberdinak proposatu eta koordinatuko dituen, batez ere praktika hoberenak partekatzeko.

**2. Kooperazioa eta topaketak sustatzea hizkuntza ez hegemonikoetan aritzen diren zinemagileen artean**

Jaialdi edo bestelako ekitaldietan networking-ak antolatzea sortzaile, ekoizle, programatzaile eta talentu gazteentzako.

**3. Zinema europarraren hizkuntza aniztasunaren inguruko ezagutza handitzea**

Ekimenak antolatzea ikus-entzule berriak bereganatu eta audientzia igotzeko.

**4. Ikusgarritasuna areagotzea**

Gure filmak errekonozituak izateko identitate bisuala sortzea.

Donostian, 2015eko irailaren 21ean